


BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEKO

urratsak

2. URRATSA
2018ko apirila

Kontsumoaren kultura berrirantz



iparheg^oa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

LAB

>ekintza soziala



Toni Lodeiro (1978) jatorriz galegoa bada ere, 2008tik Catalunyan bizi da, Sant Cugat del Vallés-en, Bartzelonatik gertu. Lehenago, Nafarroan eta Bilbon ere bizi izan da. Beraz, galegoz, euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz aritzen da.

Aspalditik egon da kontsumo kontzientearen gaian burubelarri, eta 2001etik aurrera horren inguruko hitzaldi eta tailerrak ematen hasi zen. **“Consumir menos, vivir mejor”**¹ (Txalaparta, 2008) liburua argitaratu zuen, eta honen hedapen handiak ate asko zabaldu zizkion. Hurrengo artikuluan ikusiko dugun bezala bere pentsamendua orduetik asko garatu eta eraberritu badu ere, kontsumoaren gaia kezka eta ogibide bihurtu du. Izan ere, gai honetan erreferente den Opcions aldizkariko kolaboratzaile izateaz gain, kontsultore bezala egiten du lan. Zehazki, 2015etik aurrera, Bartzelonako udalaren *Commissionat de Desenvolupament Local, Economia Social i Consum* sortuberriak *Opcions Consultoría*-ri eskatutako **“Kontsumo Arduratsua Bultzatzeko Estrategia 2016-2019”** diseinatzen ibili da.

Administrazio publikoentzako aholkularitzaz gain, 2017an eragile sozialentzako *“Som part del Canvi! Guia de consum conscient i economia solidària per associacions”*² gida argitaratu zuen eta Opcions-en bidez, Ateneu Cooperatiu de Barcelona-ren Coopolis³ kontsumo Kooperatibo Zirkuluan ere parte hartzen du.

Jarraian irakurriko duzun Urratsa, bere artikulua desberdinekin Ipar Hegoak osatutako collage bat da, denbora faltagatik ezin izan du espresuki berri bat idatzi eta. Hala ere, lan hau zuzendu eta osatu du. Ikusiko duzunez, testua hiperestekaz bete dago, gairen baten sakondu nahi izatekotan, webgune desberdinetan zuzenean sartu ahal izateko. Artikulua paperean irakurriko baduzu, ordea, esteka horiek orri-oinetan topatuko dituzu, ordenagailuaren aurrean zaudenean egin ahal izateko.

1 <http://tonilodeiro.net/wp-content/uploads/2016/07/consumir-menos-vivir-mejor-contenido-%C3%ADntegro-en-pdf.pdf>
2 <http://opcions.org/agrada/guia-associacions-part-del-canvi/>
3 <http://grupecos.coop/noticies/ecos-cercle-consum-coopolis/>

1. Kontsumoaren inguruko pentsamendua birpentsatzea

Kontsumoa murriztu?

Kontsumoa murrizteak arnega, sakrifizio zentzua du gure belarrietan, eta badirudi bizi-kalitatea jaitea barnebiltzen duela. Niretzako garrantzitsua da gutxiago kontsumitzeko dei hori berrikusi eta guztiok ilusioa gaitzakeen zerbaitekin lotzea, hobera egiteko itxaropenarekin lotu dezakegun zerbaitekin.

Kapitalismoa sexya da. Oso trebea da **desirak** sortzen. Erakargarriak eta liluragarriak diren bizitzak, edo bizitza-puskak agintzen- eta maiz, lortzen. Ez al duzu plazerik sentitzen smartphone bat lehen aldiz erabiltzean? Eta zerbaite borondate sozialak- eta bozka borondateak- sortzeko gai baldin bada, besterik gabe, hobeto bizi ahal izatearen ilusioa da. Nahiz eta kontrakoaren beldurrak, hau da, bizi kalitatea galtzeak -termino kontsumistetan, bizi maila galtzeak- era berean mobilizatu gaitzakeen.

Komunikatiboki hitz eginda, zer egin dezakegu hobeto proposamen alternatiboek? Sarritan gure proposamenak **kontrakoak** izan dira, edo gutxienez, ez oso iradokitzaileak. Eta, gainera, ez dira merkatuaren pentsaera moldetik atera. Saia zaitez segundo batzuek agindu hau jarraitzen: "ez pentsatu elefante batean". Lortu duzu? Ba orain aztertu hurrengo lelo hauek: *buy nothing day*, desazkundea, murriztu -zer murriztu?- edo -bai, *mea culpa*- gutxiago kontsumitu. Pasa gaitzean orain gure formulazio negatiboetatik, positiboak, baina ez oso xarmagarriak, diren horietara: kontsumo arduratsua, kritikoa, solidarioa... Aharrausi baten onomatopeia batekin jarraitzen ez badut, ezagutzen ez dudalako da -ala ez da existitzen?

Onar dezagun: motibatutako gutxieneko batentzako salbu, ez dira bereziki erakargarriak diren izendapenak. Arduratsua izatean pentsatu, eta aita serio baten irudia datorkit burura, felpazko bata eta koadrozko etxeko-zapatilak jarrita, bere seme-ari erretolika botatzen: "Manolito, izan arduratsua". Bitartean hatz erakuslea altxatuta, noski. Eta kontua ez da arduraren, espiritu kritikoa edo koherentzia ez direla oso balore positiboak eta gure bizitzetan euren presentzia ez dela zoriontsuagoak izan gaitzean erabilgarria, inola ere ez. Konbentzitututa nago ezinbesteko ekarpen erabilgarria direla.

Kontsumo arduratsua hobeto bizitzeko tresna dela uste dut. Izan ere, dudanarekin jarraitu ahal dudalako kotxea aldatzen ez dudanean, arropa edo telebista hain maiztasun handiarekin aldatu behar ez ditudan neurrian, aurrezten ari naizelako, eta agian horrela nire lanaldia murrizteko aukera izan dezaket, urte sabatikoa hartu edo ordu estrak egitea saihestu. Eta **denbora hori bizi kalitate hobea ematen didaten jardueretarako erabili**: familia, irakurketa, birziklapen profesionala edo, besterik gabe, zortzi orduko egitea, gaur egun luxu bat da eta. Kontsumoaren murrizketa askapen bide bat izan daiteke, edo, hain urrun joan gabe, gure bizitzak gure baloreei egokitzeko modu bat. Teorian, kontsumoa bizitza hobea izateko bitarteko bat izan beharko litzateke, baina helburu bihurtu da, kontrako ondorioekin. Izan ere, gure bizi kalitatea klaskatu zuen, bizitza kontsumismoaren mesedetan sakrifikatu zen.

Baina ez ditugu proposamen onak bakarrik behar. Jendea-ri **erakargarriak** suertatzeko moduan ezagutarazteko bideak topatzea ere beharrezkoa zaigu, gure mezuei itxiagoak egon daitezkeen pertsonen gure praktikak gerturatzea erraztuko diguten bitartekoak.

Kontsumoari buruzko mezuak birplanteatzea

Ikas dezagun komunikazio politikotik. Lehen bazterrekoak ziren ze mugimenduk lortu dute azkenaldian milioika pertsonen babesa hauteskundeetan? Nola egin dute? **Positibotasunez**. Pentsatu euren izenetan: Junts Pel Sí eta Podemos (ze ona zen euren lehen kanpainako leloa: "Noiz izan zen ilusioz bozkatu zenuen azken aldia?!"). Positibotasunez hitz egiteari buruz ari garela, "gure" kontzeptuen artean, zein egiten zaizkizue erakargarrienak, "ahar-rausi onomatopeia" gutxien merezi dutenak? Nire zerrendarekin hasiko naiz, osatzen lagunduko nauzelakoan: borondatezko sinplizitatea, bizitza ona, edo "ondo bizi, gutxiagorekin bizita" hura. *Slow* den guztia: *slow food*, *slow cities*... Kontsumo kolaboratiboa, edo ekonomia zirkularra. Horrez gain, nola ez, naturala, bio, eko... Bai, badakit aipatuberrri ditudan kontzeptu hauetako batzuk direla, hain zuzen ere, kapitalismoak "xurgatuenak" edo "kutsatuenak"... Ez al da ba izango ba merkatuak erabili beharreko izendapenak oso ondo pentsatu eta aukeratzen dituela?

Edukiko luke **kontsumo alternatiben egunak** erosketarik gabeko egunak baino arrakasta handiagoa? Ekonomia Solidarioaren Azoken⁴ arrakastak baietz frogatzen duela dirudi. Norabide berean oso erakargarriak dira Setem Catalunya-ren Alternatiben Install Party⁵-a edo Greenpeace-n Make Something Week⁶-a. Dirua, kontsumoa, ekonomia, merkatua... existitzen dira eta existitzen jarraituko dute beharri zuten jarraitzen dioten bitartean. Eta ez dira begirada kritikoak, ezinbestekoak, falta behar. Baina, ez al da ilusionagarriagoa -eta eraginkorragoa- alternatibak gero eta maila handiagoan, gutxienekoetatik harago, bideragarriak⁷ direla aditzera ematen duten zenbait datu ospatzea? Eta alternatiben hedapenarekin konprometitutako gero eta politika publiko gehiago⁸ daudela? Gutako askok Som Energia-k argiaren faktura bidaltzen digunean edo banka etikoan gure lehen kontu korrontea zabaldu eta erabiltzen dugunean sentitzen dugun poza oso birus kutsakorra izan daiteke. Eta kutsatzeko gaitasun hori mugatua baldin bada, zergatik ez bideratu lehenengo indartsuago egin daitekeen eta komunitatea eratu dezakeen espazioetara?


Ezkerrak ez ditu *american way of life*-aren aurrean bizi-eredu alternatiba ilusionagarri nahikoa aurkeztu. Eta ilusioa eta hobekuntza espektatibak gasolina emozional garrantzitsua dira, agian ez haserre baina boteretsuagoak, baina zalantzarik gabe bai denboran sostengarriagoak.

Horregatik dira hain garrantzitsuak orain eta hemen, "bitartean", amesten ditugunekin antza handiagoa duten bizitzak bizitzera animatzen gaituzten proposamenak. Sinesten dugun zerbaitetan lan egin dezagun (lanean pasatzen ditugun ordu guztiekin!), **astelehenak hain astelehen izan ez daitezten**, ekonomia solidarioa⁹. Merezki duten proiektuak babesten gure beharrianak asetzeko kontsumo kontzientea¹⁰. Ekonomia feminista¹¹ gehiago eta hobeto zaindu dezagun, egitearen garrantziaz jabetuta; gizonok estimuez eta zaintzak (nekeaz gain) eragiten duen asebetetze tentsazioaz gehiago ikas dezagun; eta emakumeek espazio publiko gehiago okupatu ahal izateko zuen begirada aberasgarria ekarriz. Kultura gutxituak bultzatu, hizkuntzetan idazten edo hitz egiten gozatzeko, edo globalizazioaren eta zentralismoen zampaketa-makinen "pragmatismoak" txikituak izatera erresistitzen diren musika eta kanta dantzatzuz. Aniztasunean euren buruak aitortzen ikasten duten gorputzak, eta beste gorputz batzuekiko gustu eta erakarpentzen anitzaz gozaten.

Komunean: bizitza zaintzea, positiboan

Gure kulturak zaintzea, gure ingurunea zaintzea, pertsonak zaintzea... bizitza zaintzea da zentzua eta lotura ematen die-na, "beste mundu bat posible" izateaz askoz harago, beste mundu bat dagoeneko existitzen dela, eta funtzionatzen duela frogatuz! Eta eskura daukagu. Izan ere, "pertsonala politikoa da", eta, Eduardo Galeanoren hitzetan "egiten duguna gara, baina batez ere, garena aldatzeko egiten duguna gara".

4 <https://alternativaseconomicas.coop/articulo/economia-social-y-colaborativa/un-otono-pleno-de-solidaridad>
5 <https://eticcom.wordpress.com/2016/05/16/primera-edicion-de-la-install-party-evento-que-promueve-alternativas-ajenas-al-capitalismo/>
6 <https://es.greenpeace.org/es/sala-de-prensa/comunicados/primeras-jornadas-de-greenpeace-para-consumir-con-sentido/>
7 <https://www.ecologistasenaccion.org/?p=34698>
8 <http://opcions.org/es/nos-gusta/nuevas-politicas-impulso-econ-transformadoras/>
9 https://www.eldiario.es/alternativaseconomicas/Economia-Solidaridad-Crisis_6_605149489.html
10 <http://opcions.org/es/nos-gusta/salto-consumo-consciente/>
11 <https://www.diagonalperiodico.net/global/deberiamos-plantearnos-idea-vida-merece-la-pena-ser-vivida-manera-colectiva-y-democratica>



3000 bazkide baino gehiago ditu Iruñerriko Landare produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkarteak.

Iturria: [Landare Elkarte](#)

2. Kontsumo Kultura Berria... eta trantsizioa bere bidean

Ezin dugu arnas luzeko jendarte eraldaketak jendearen motibazioari eta borondate onari eskatuta soilik ematea. Lortzeko, egiturak aldatu behar dira. Aldaketak hiru maila desberdinetan garatzen dira: aldaketa pertsonalak, komunitatean edo maila sozialean ematen direnak eta, aldaketa orokorrak, joko arauak dagozkienak.

Ezbairik gabe, azken xedea joko arauak aldatzea da, etxetik gertu eta modu jasangarrian ereindako letxuga ehunka kilometro bidaiatuta iritsi dena baino merkeagoa izan dadin. Eta hori onuren eta zigor fiskalen bidez egiten da. Gure egiturek baldintzatuta gaude eta aldatu egin behar ditugu, ekintza ona, komunitatearen aldekoa, soziala eta ingurugiroarekiko errespetuzkoa eskuragarriagoa, errazagoa, eroso eta merkeagoa izan dadin. Baita ekintza kaltegarri eta kutsakorrek egitea zailagoa izan dadin ere, legediak oztopoak jar diezazkion. Azken batean, ez dut uste bestelako kontsumo eredu batek gastu handiagoa dakarrenik, gure gastuen bestelako birbanaketa egokiago bat egitea baizik.

Aldaketa pertsonalak

Ikasketa prozesu bezala balio dute, aldaketa kulturalera eta bestelako harreman pertsonaletara lotzeko balio dute, komunitate ehundura josteko. Eguneroko bizitzako aldaketak eraldaketa-haztegi dira, aktibazio-oinarri, baina euren kabuz bakarrik, nahiz eta pilatzen joan, ez dute aldaketa orokortu bat lortuko. Aldi berean, egunerokotasunaren aldaketek oinarrizko funtzio bat dute: *hegemonia kultural alternatibo* baten eraikuntzan eguneroko kontu txikien balioa gutxien duena zeharo okertuta dago. Adibide konkretu bat jartzearren: zertarako balio du ni erosketak egitera etxetik nire poltsarekin joateak? Eztabaida sustatzeko balio du, ni are gehiago kontzientziazteko edo berresteko balio du eta gainerakoak kontzientziazteko balio du. Hori bai, aldaketa soziala mugimendu antolatua -Irlandan eta gutxika gurean gertatu bezala- legez plastikozko poltsak derrigorrez 20 zentimoko prezioa izatea lortzen duenean bakarrik gertatzen

da. Kontsumo arduratsua aldaketak irrist egiteko likidoa izan daiteke, baina ez da gasolina, edo motorra, gutxienez ez da motor bakarra. Zentzu horretan, *Kontsumo Kultura Berria* kontzeptua gustatzen zait, kolektiboa den zerbaiti egiten diolako erreferentzia, helburu sozial bati, kontsumo arduratsua izendapenak ekintza guztiz indibidual bati dei egiten diola baitirudi.

Aldaketa kolektiborantz

Eskaini nahi genukeen azkena pertsoneri santutasuna edo perfekzioa eskatzen dien begirada moralista bat da. Eraldaketa prozesua askapen prozesu bat izan behar dela proposatzen dugu, pertsonak ezagutzeko aukera bat, ikastekoa, esperientzia berriak bizitzekoa, egiazko bizitza edukitzekoa. Koherentzia bizitzarentzako zentzu eta gogobetetze bilaketa bezala ulertua, eta ez eredugarriak izateko beharizan bezala. Pertsonen arteko harremanetan ingurukoei exijitza, sermoiak botatzeak edo lezioak emateak ez du balio, gure ereduarekin erakusteak baizik. Eremu politiko eta legalean, ordea, bai exijitu behar da, eta aldaketak zein mugak aldarrikatu.

Jendea animatu egin behar da, ilusioa eraldaketaren motorra izan dadin. Gauza berriak probatzera animatu behar da, eta aldaketak beste pertsona batzuekin konpartitzera, prozesua bakardadean ez bizitzera. Familiako, lantokiko edo klaseko xelebrea izatea izugarri nekagarria da. Baina eskura dituzun sare edo espazioetan beste jende batekin batzean, horrek asko ahalduntzen du. Ez ditzagun aldaketak bakarka bizi, batu gaitezen beste pertsona batzuekin, horrek prozesua oraindik ere gehiago gozatzea ekarriko baitu, eta plazerrak aldaketa sakonagoa, iraunkorragoa eta kutsakorragoa izatea. Kultura berri hau ezker klasikoa bezain moralista, estua eta zorrotza izatea ekidin behar dugu.

Instituzioen ezinbesteko papera

2017an Bartzelonako Udalaren Kontsumo Arduratsua Sustatzeko Estrategia zein Madrileko Udalaren Kontsumo Jasangarriaren Sustapen Plana onartu ziren. 2018 urterako Zaragozako kontsumo Arduratsua Sustatzeko Estrategia adostea espero dugu. Kontsumo kontzientea politika publiko propioak merezi dituen arlo bezala ulertzen duten nolabaiteko funtsa duten lehenengo neurriak dira, espainiar estatuan gutxienez. Bazeuden gaiarekin lotuta dauden politika publikoak, energia eraginkortasuna eta aurrezteko estrategiak edo aldaketa klimatikoak borrokatzekoak, adibidez, baina kontsumo arduratsua kontsumorako politika publikoen ardatz gisa kokatzen zutenik ez. Tradizioz, politika publikoak kontsumitzaileen eskubideen babesera, eta zenbait kasutan, kontsumo "osasuntsua" bultzatzera mugatu dira.

Opcions-eko taldekideok Bartzelonako Udalaren estrategia oinarritzen duen proposamen tekniko osatzeko pribilegioa eduki genuen, baita Madrilan zein Zaragozan haren balokidea osatu zuten taldeekin elkarlanean aritzekoa ere.

Izan ere, urteak daramatzagu esfortzu indibidualak eta ekimen enpresarial zein komunitarioak bestelako kontsumo eredu bat eraikitzeke nahikoa ez direla mahai-gaineratuz, hau da, aurrera pausoak emateko politika publiko irmoak behar direla. Oso beharrezkoa ikusten dugun kontsumo kontziente eta kontsumo alternatiben testuinguruan, aldaketa kolektiboaren garrantzia azpimarratzea, maiz, oharkabean, norbanakoen aldaketa txikien balioa gain-dimentsionatu baitugu, nahi gabe aldaketa sozialaren begirada inuzente eta indibidualista indartzuz.

Hala ere, gure testuinguruan ospatu beharreko aurrekariak badira ere, optimista jarrita ere (saiatzen gara eta), "basamortuaren hedapen" bestela deitu ezin dugun agertoki (sozioekonomiko zein politika publikoei dagokiena) orokor batean, "ur tantak" (edo askoz jota "ontziak") besterik ez dira.

3. Abian den trantsizioa

Nahiz eta krisiak hainbat aldaketa pertsonal zein murrizketek kaltetutako zenbait politika publiko martxan jartzea zaildu, horrelako aldaketak martxan jarzteak duen garrantziaren kontzientziak ez dio hedatzeari utzi.

Urtetan "txikia ederra dela" defendatu ondoren, gaur egun kontsumo alternatibaren inguruko eztabaiden erdigunea ekimen profesionalizatuak maila handiagoan nola bultzatu hausnartzea da, milaka erabiltzailerik zerbitzua eskaini eta merkatu berrietan txoko bat lortu ahal izateko.

XXI. mendea kontsumo arduratsuen hedapen indartsu batekin hasi zen, ekonomia komunitarioen¹² eta **eskala txikiko** enpresa-ekimenen berebiziko protagonismoarekin, eta desazkundera eragin handiena zuen paradigma zelarik.

Azken urteetan, ordea, gori-gorian dauden eztabaida eta errelato berriek eskala aldaketaz eta profesionalizazioaz hitz egiten dute. Eta milaka, edo kasu batzuetan, ehunka milaka pertsonari¹³ zerbitzua ematen dieten kontsumo alternatibak egonkortu dira.

Horretarako ezinbestekoak izan dira ekimen desberdinek pilotutako heldutasuna eta esperientzia, zein ziklo politiko berria.

Desazkundera eta autogestioa

XXI. mendean eremu desberdinetan ekimen desberdinak hasi ziren bor-borka. Ortu komunitarioak, kontsumo taldeak eta erosketak agroekologikorako aukera ugari¹⁴, finantza eti-

koen esperientziak, eskolatxo autogestionatuak eta kiantza taldeak, esperientzia komunitarioak eta ekoherririkak, zentro sozialak...

Kataluniako zifrek esperientzien benetako *baby booma* islatzen dute. Eskola libreak bost aldiz biderkatu ziren 2005 eta 2016 artean, eta 2007an zeuden kontsumo-taldeak laukoiztu egin ziren 2013an zeuden 160 taldeetara iritsi arte –ordutik antza hazi ez den kopurua¹⁵.

XXI mendeko lehenengo hiru bosturtekoetan jarraitzaile gehien izan dituzten esperientzietako asko "Txikia ederra da" (petrolioaren krisi bete-betean 1973an arrakasta handia izandako eta 1999. urtean berreditatutako saiakera) filosofian oinarritu ziren. Are gehiago, "desazkundera" eremu honetan paradigma babestuenetarikoa zen, bere inguruko argitalpen, eztabaida eta ekimen ugari antolatzen zirelarik.

Haztearen aldeko apustua, baina beste zentzu batean

2016ko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresuaren izena anbizio handikoa zen: "ESS-ren zabalpena: ekonomia eraldatzeko garaia da!". Eta deskribapenak ideia hori berresten zuen: "Urteak daramatzagu geure buruak prestatzen, frogak egiten, proiektuak egonkortzen. Milaka ekimen, bizitzako eremu guztietan, gero eta pertsona gehiagok babestuak (...). **Jauzia emateko garaia iritsi da**, alternatiba batean sinesteari utzi eta errealitate berri bat eraikitzen hastekoa".

12 <http://opcions.org/es/revista-es/44-economias-colaborativas/>


13 <http://opcions.org/es/nos-gusta/salto-consumo-consciente/>

14 http://blog.lacolmenaquedicesi.es/compra_directa/

15 <http://opcions.org/es/opinion/techo-grupos-consumo-agroecologico/>

Agroelkadura kontsumo taldeen garapena Catalunya.

Iturria:
"L'Economia Social i Solidària a Barcelona"
(Anna Fernández i Ivan Miró, 2016)



Kongresuko lan ildoetako bat Opcions-eko kide Ruben Suriñach-ek ireki zuen, "Arnas luzeko egiturak: ekonomia sozial eta solidarioaren mailaz igotzeko erronka"¹⁶ izenburuko hitzaldi batekin. Horrela hasten zen: "Kongresuko leloak dioen bezala, ekonomia aldatzeko garaia bada, bonbazia handian pentsatu behar dugu. Hau da, jendarteko kapa zabalengana iristeko (...) ze proposamen egin ditzakegun irudikatu behar dugu (...) eta kooperazio eta demokrazia ekonomikoaren oinarrien gainean gehiengo sozialen beharizanak asetzeko espazioak sor ditzaketela frogatu. Gai gara publiko handia merkatu sozialeko gure produktu eta zerbitzuekin erakarri eta interpelatzeko?"

Eta Kongresuaren egitarauan bereziki nabarmentzen zen ekonomia solidarioa bultzatzeko politika publikoei buruzko mintegi bat, dagoeneko 2015etik hedapen bete-betean. Azaldu dugun bezala, administrazio publikoen konpromisoa alternatiba ekonomikoaren garapena erraztu eta bizkortzeko osagai gaxoa da.

2018an indarra hartu duen eztabaida formatu handiko kontsumo agroekologikoko alternatiben ingurukoa da.

Park Slope Food Coop (16.000 bazkide dituen Brooklyn-eko supermerkatu bat) kooperatibari buruzko pelikularen emanaldiek Frantzia ehunka proiektu jaiotzea lagundu dute, eta duela gutxi antzeko proiektuentzako talde-motorrak sortu dira Bartzelonan¹⁷ zein Madrilen¹⁸.

Pelikularen zuzendaria den Thomas Boothe-k¹⁹ denda txikiak martxan jartzeak antza funtzionatzen ez duela azaltzen du: "ohiko saltoki handiekin lehiatu behar duzu, haiek bezainbeste ordu zabalik egon behar duzu, eta hori egin ahal izateko, jende kopuru jakin bat behar da. Asteaz sei egun irekitzen baduzu, generoa goizeko seietan jasotzen hasten bazara eta gabeko hamarretan bukatu, kutxetan kobratzen, apaletan gauzak antolatzen, garbitzen, etab. jendea behar duzun aldi berean... (...) Funtziona dezan gutxienez **1.200 edo 1.500 pertsona** beharko genituzke."

Kontuan hartzeko datu bat: deigarria da eztabaida Brooklyn-eko proiektu bati buruzko pelikula frantses batek piztu izana, askoz hurbilago eskala handiko proiektuak ditugunean: Iruñean (**Landare**), Gasteizen (**Bio Alai**), edo Oiartzun zein Bilbon (**Labore**). Izan ere, Food Coop-en esperientziarekiko ikusmirak itsututa, biderketa errazak eta hiruko erregelak aplikatuta kasualitatez egin dudan analisi ageriko bati ezikusia egiten ari gara. Landareren bazkide diren 3.000 kontsumo-unitateek, Bio-Alairen 1.400 bazkideek eta Oiartzuneko Laboreren 400 lagunek, euren erreferentziatzako biztanleriaren proportzioarekin alderatuta, Park Slope Food Coop-en irismena sobera gaitzen dute! (Brooklyn-ek 2 milioi biztanle ditu) Landarek, berak bakarrik, 350.000 biztanleko eskualde bakarreko, Iruñako erroko, 3.600 kontsumo-unitate batzen ditu²⁰. Beraz, "Food Coop. efektuak" alternatiben zabalpe-

16 <https://esskongresua.net/wp-content/uploads/3.-Cuaderno.pdf>

17 <https://foodcoopbcn.cat/>

18 <http://madridagroecologico.org/evento/lanzar-supermercado-cooperativo-en-lavapias/>

19 <https://maresmadrid.es/actualidad/supermercado-cooperativo/>

20 <http://www.soberaniaalimentaria.info/numeros-publicados/56-numero-25/361-la-experiencia-de-la-asociacion-landare>

nerako bitarteko audiobisualek duten garrantziaz ohartzeko balio behar digu.

Zifra hauek, bide batez, zalantzan jartzen dute Catalunyan ohikoena den kontsumo-talde txikien eredu, zeinetan 160 bat taldek, bakoitzak batez beste 30 kontsumo-unitate bilduta, 7 milioi herritarrek gainditzen dituen biztanleria katalanean 5.000 familia "bakarrik" batzen dituzten. **Inpaktu sozioekonomikoari begiratuta, tamaina handiagoko ekimen eredu euskaldunak sobera irabazten du.**

Duela gutxi ospatutako elikadura-kooperatibismoaren profesionalizazio eta eskala aldaketari buruzko jardunaldi batzuetan²¹, Landareko Valero Casasnovasek azaltzen zuen eskala handiagoak irismenean bakarrik handitzeko ez, koherentzia sakontzeko ere balio zuela. Azaltzen zuen kontsumo talde txikiek, gaitasun ezagatik, banatzaileei erosten bukatzen dutela, Landarek, bere tamaina eta kudeaketa profesional ona dela era, zuzenean 110 ekoizleri erosteko gaitasuna duen bitartean. Era berean, La Magrana Vallesana-ko Míriam González-ek profesionalizazioak bazkideei euren borondatezko ekarpena -beste talde batzuetan kudeaketa kontuek janda dagoen bitartean- bestelako eginkizun batzuetara bideratzeko aukera ematen diela azaldu zuen: sensibilizazioa eta ekintza soziala, zaintzak, komunitate sarea...

Baina jauzi hau ez da agroelikaduraren industriari bakarrik ematen. Banka etikoak dagoeneko 200.000 bezeroak gainditzen ditu espainiar estatuan, 2011 urte bukaeran 60.000 zirenean; Som Energía²² edo Goiener²³ bezalako

kooperatibek 30.000 elektrizitate-kontratuak aspaldi pasa dituzte; Catalunyan bakarrik, kontsumo agroekologiko taldeak 160 baino gehiago dira, eta Bartzelonako Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko oso txosten gomendagarri batek²⁴ hiriko BPGari %7ko ekarpena egiten diotela dio... Mugimendu hau dagoeneko fardelak utzi dituen haur bat bezalakoa dela uste dut: txikia izaten jarraitzen du, baina ibili, badabil.

M15 eta Procés-a, bi legami on (testuinguruak ere garrantzia du)

Duela ez asko, M15 mugimenduak eta konpainia elektrikoek legimitate krisiak banka etikoek eta kooperatiba elektriko berdeen hazkunde tasetan izandako eragina azaldu genuen²⁵. Azken hilabeetan, Procés-a eta zenbait enpresa katalan handik euren egoitza soziala aldatzea izan da lurraldearekiko konpromiso handiagoa duten enpresekiko herritarren interesa²⁶ berriro ere duena. Som Energía da adibide bat, azken hilabeetan bere kontratu eskaerak hirukoiztuta ikusi ditu eta! Dagoeneko 72.000 kontratu pasa ditu, eta horrekin batera bere taldera profesional berriak batzeko beharra sortu da, ez baitio hazteari uzten. Bere aldetik, Somos Conexión urtebete eskascan 3.000 kontratutik 5.000 kontratura igo da, oso hazkunde tasa altua.

21 https://pemb.cat/es/noticias/facilitar_el_acceso_a_los_buenos_alimentos_y_contribuir_a_cambiar_el_modelo_de_consumo_factores_esenciales_en_el_debate_sobre_el_cambio_de_escalay_la_profesionalizacion_en_el_cooperativismo_de_consumo_alimentario/146/

22 <https://www.somenergia.coop/eu/>

23 <https://www.goiener.com/>

24 https://www.slideshare.net/Barcelona_cat/informe-leconomia-social-i-solidria-a-barcelona

25 <http://opcions.org/es/nos-gusta/salto-consumo-consciente/>

26 <http://www.publico.es/public/context-politic-dispara-l-interes-ciudadana-per-diverses-companyies-catalanes.html>

4. (Behin-behineko) ondorioak

Erroka berriak ditu aurrez aurre. Eta kontua ez da markadetako "lur-azpiko" lan "kontra-kulturalaren" ezinbesteko ikaspenak ahaztea, ekimen txikien uhartediaren ekarpenen balioa gutxiestea edo egun duten erabilgarritasuna gutxiestea. Baina bai euren gune erosotik irteteko eta ezezagunagoak diren eremuetan sartzeko garaia dela azpimarratzea.

Zentzu honetan, gure errealitatean benetan eragin nahi baldin badugu, positiboa izango litzateke enpresa-eredu kapitalistaren arrakastaren zenbait elementu barnebiltzeko beharra ulertzea. Ekonomia kooperatibo eta komunitarioek konplexurik gabe **hazkundeaz eta eskala ekonomiez** hitz egiteko garaia da, baita gure produktu eta zerbitzuen eskaintzaren **espezializazioaz, profesionalizazioaz eta lehiakortasunaz** hausnartzekoa ere.

Ez da erraza, izan ere. Ruben Suriñach-ek zioen bezala:

"Izango al gara gai gure enpresak hazten doazen heinean euren eraldaketa sozialerako gaitasuna disolba ez dadin? Non geratzen dira antolakundeetan zaintza eta ikuspegi feminista, konfiantza eta afektu zirkuluetatik harago merkatu berrietara hedatzeko makro-egiturak sortzen ditugunean? Gai al gara izaera kooperatiboa, desazkundera eta feminismoa egitura handietan barnebiltzeko dituen enpresa-kultura berri bat irudikatu eta garatzeko? Zelan egingo diegu aurre eta gaitutako ditugu hainbestetan aurrera egitea galarazten diguten inkoherentziekiko beldurrari eta tabuei?"

Niri dagokidanez, hainbeste galderari eta erronkari irmotasunez erantzuteko ezintasunaren aurrean, poesiara jo eta, Serrat-en erritmora, Machado-ren bertso jakintsuak ahopeka kantatzea baino ez datorkit burura: "bidegile ez dago biderik, ibiltzean egiten da bidea / kolpez kolpe, bertsoz bertso²⁷".

